



**RED DE UNIVERSIDADES
POR LA DIVERSIDAD**

**RUD SAREAK LGTBIA+ ESKUBIDEEN ALDE EGITEN
DU BERRIRO 2024an, ETA PALESTINAR HERRIAREN
AURKAKO GENOZIDIOA GAITZESTEN DU**

Aniztasunaren aldeko Unibertsitateen Sareak (RUD) unibertsitate-ingurune segurua, inklusiboa eta harroa eraikitzeke konpromisoa berresten du, pertsona guztiak diskriminazioa edo indarkeria jasateko beldurrik gabe erabat garatu ahal izateko.

Unibertsitate garen aldetik, hezkuntza gizartea eraldatzeko tresnarik boteretsuenetako bat dela. Hala ere, ez dugu hitz berririk 2023ko manifestuarekin alderatuta.

Berriro diogu RUD sarea kezkatuta dagoela oinarritzko Giza Eskubideen aurkako diskurtsoen gorakadarekin.

Berriz diogu unibertsitateak, hezkuntza-erakunde gisa, gaitasun kritikoa, gogoetatsua eta analitikoa sustatzen jarraitu behar duela, pertsona guztientzako bizigarriagoa izango den gizartea eraikitzeke eraldaketa ahalbidetzeko.

Berriro diogu RUD sarea ez dagoela gure gizartetik kanpo. Lanean jarraitzen dugu unibertsitateak gune seguruak izan daitezen. Gizarte-aldarrikapenen aliatutzat jotzen dugu geure burua, aniztasunean eskubide-berdintasuna eta bizikidetzat ospatu ahal izateko.

Sentitzen dugu hitz horietara mugatu behar izatea, baina are gogorragoa egiten zaigu errealitate horiei aurre egitea, errealitate horiek hobetu beharrean errotze handiagoa erakusten baitute imaginario politiko, sozial eta kulturaletan.

Hala ere, funtsezkoa iruditzen zaigu Palestinako genozidioa gaitzesteko aipamen espezifiko bat egitea. RUD sareak gogor arbuatu nahi du ustezko LGTBIA+ eskubideen defentsa aitzakia izatea sarraski hori justifikatzeko.

Giza eskubideen urraketak gizarte osoaren erantzukizuna dira.

Eta joan beharreko etxerik ez bazenu? Eta beldurrik gabe ibiltzerik ez bazenu? Eta norengana jo ez bazenu? Eta unibertsitateerik ez bazenu? Eta zu zeu ezin bazina izan?

Azkenik, berriro diogu RUD sarea feminista, LGTBIA+, transinklusiboa, despatologizatzailea, mestizoa, barneratzailea, aurrerakoia, ekologista, poliglota, arrazismoaren aurkako, antikapazitista eta antipatriarkala dela, eta ekitatearen eta justizia sozialaren printzipioei jarraitzen diela. Eta, batez ere, familia-aniztasunaren alde dago, ikusgai eta harroa da.

Orain arte RUD sareari atxikitako unibertsitateak honako hauek dira:

Universidade da Coruña, Universidad de Alcalá, Universitat d'Alacant, Universidad de Almería, Universitat Autònoma de Barcelona, Universidad Autónoma de Madrid, Universitat de Barcelona, Universitat Oberta de Catalunya, Universidad Carlos III de Madrid, Universidad de Cádiz, Universidad de Castilla La Mancha, Universidad Complutense de Madrid, Universidad de Córdoba, Universidad de Extremadura, Universidad Fernando Pessoa-Canarias, Universitat de Girona, Universidad de Granada, Universidad de Huelva, Universidad de Jaén, Universidad Jaume I de Castellón, Universidad de La Laguna, Universidad de La Rioja, Universidad de León, Universidad de Lleida, Universidad de Málaga, Universidad Miguel Hernández de Elche, Universidad de Oviedo, Universidad Pablo de Olavide de Sevilla, Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea, Universidad Politécnica de Cartagena, Universitat Politècnica de Catalunya, Universidad Politécnica de Madrid, Universitat Pompeu Fabra, Universidad Rey Juan Carlos, Universitat Rovira i Virgili, Universidad de Santiago de Compostela, Universidad de Sevilla, Universitat de València, Universidad de Valladolid, Universidad de Vigo, Universidad de Zaragoza.

Informazio gehiago:

rud.coordinacion@gmail.com



**ANIZTASUNAREN ALDEKO
UNIBERTSITATEEN SAREA**